

# Covid-19arengatik ezarritako konfinamenduaren eragina unibertsitateko LGB ikasleen egoeran eta osasun mentalean

Estibaliz Ceba-Rodríguez, Juan Etxeberria-Murgiondo  
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Covid-19ak osasun mentalean izan duen eragina oso ezaguna izan arren, ez dago lesbianen, gayen eta bisexualen (LGB) osasunean pandemiak nola eragin dien zehazten duen ikerketarik Espainian. 475 LGB ikaslek parte hartu zuten gai horren inguruko inkesta-azterlanean. Laurdenek baino gehiagok depresio klinikoa (% 29,3) eta antsietate-nahasmendu orokorra (% 25,7) izateko probabilitatea zuten. Gainera, pandemian zehar sexu-gutxiengoetan identifikatutako faktore estresagarri espezifikoak aztertu ziren. Parte-hartzaileen % 5,1ek adierazi zuten sexu-orientazioarekin lotutako familia-gatazkak maiz izan zituztela. Heren batek (% 33,5) baieztatu zuen lesbiana, gay eta bisexualen komunitatearekiko lotura murriztu zuela. Beraz, emaitzek erakutsi zuten, Covid-19arekin lotutako faktore estresagarri espezifikoek depresio- eta antsietate-sintomen aldaketa nabarmena azaltzen zutela. LGB gazteen osasun mentalarari zuzendutako erakundeek gehiago ulertu beharko lituzkete familiari, espazioari eta pribatutasunari buruzko kezak, laguntza esanguratsuak eskaintzeko. Erantzun politiko gisa, baliteke LGB gazteentzako espazio eta babesleku seguruak behar izatea.

GAKO-HITZAK: Covid-19a · Pandemia · Osasun mentala · LGB · Unibertsitatea.

## Impact of Covid-19 confinement on the state and mental health of LGB university students

The impact of Covid-19 on mental health is well known, but there is no study in Spain to determine how the pandemic has affected the health of lesbians, gays and bisexuals (LGB) people. 475 LGB students participated in the study on this subject. More than a quarter were likely to suffer from clinical depression (29.3 %) and general anxiety disorder (25.7 %). In addition, specific stressful factors identified in sexual minorities during the pandemic were studied. 5.1 % of participants reported frequent family conflicts related to sexual orientation. One-third (33.5 %) claimed to have reduced their association with the lesbian, gay, and bisexual community. The results showed the presence of stressful specific factors for the LGB people associated with Covid-19 that explained a significant change in symptoms of depression and anxiety in this population. Organizations focused on the mental health of LGB people should understand more about family, context and privacy concerns for the purpose of provide meaningful support. As a political response, safe spaces and institutions are needed.

KEY WORDS: Covid-19 · Pandemic · Mental health · LGB · University.

<https://doi.org/10.26876/uztaro.5069>

*Jasotze-data:* 2023-09-01 *Onartze-data:* 2023-11-09

## Sarrera

Osasunaren Mundu Erakundeak (OMS ingelesez) 2020ko urtarrilean «Larrialdi» gisa jarri zuen koronabirusaren gaixotasuna (Covid-19a) eta urte bereko martxoan «Pandemia» gisa izendatu zuen (Moreno *et al.*, 2020). Berehala, nazioarteko agintariek birusaren hedapen handiagoa eragozteko neurriak ezarri zituzten, esate baterako, konfinamendu-aginduak, urruntze sozialerako aginduak eta erakundeen itxiera. Prebentzio-neurriak funtsezkoak izan ziren Covid-19aren pandemia arintzeko (Brunier eta Drysdale, 2020; Tsamakis *et al.*, 2021), baina eragina izan zuten herritarren errutinan eta osasun mentalean.

Osasun mentalari eragin dioten faktore ugariak, besteak beste, Covid-19arekin kutsatzeko beldurra (Luo *et al.*, 2021), etxean geratzeko aginduak eta kezka finantzarioak (Hall *et al.*, 2022; Rodríguez-Rey *et al.*, 2020), bizitza eta lana etetea (Mezzina *et al.*, 2020; Tsamakis *et al.*, 2021; Zhang *et al.*, 2020), bakardadea, larritasuna (Geirdal *et al.*, 2021; Jaspal eta Breakwell, 2022; Lee *et al.*, 2020; Pai eta Vella, 2022) eta osasun mentaleko zerbitzuen etetea (Brunier eta Drysdale, 2020) izan dira.

Horrekin lotuta, alde batetik, zenbait azterlan argitaratu dira Covid-19a pasa duten pertsonen errutinari eta osasun mentalari eragin dioten faktoreak ezagutzeko (Tsamakis *et al.*, 2021). Bestetik, inguruko pertsonen egoeran sakontzeko, hala nola ospitaleratutako haurren gurasoen osasunean (Shteinbuk *et al.*, 2022; Yuan *et al.*, 2020), baita mediku, erizain eta bestelako langileen osasun mentalean eta ongizatean ere (Chutiyami *et al.*, 2022; Ghahramani *et al.*, 2023; Vizheh *et al.*, 2020). Halaber, talde kalteberen osasun mentala ikertu da, besteak beste, adineko populazioa (Dura-Perez *et al.*, 2022), etxerik gabeko pertsonak (Camara *et al.*, 2023) eta etorkinak eta errefuxiatuak (Chaaya *et al.*, 2022). Izan ere, lan horiek ondorioztatzen dute Covid-19aren pandemiak eguneroko bizitzan faktore estresagarri gehigarriak sortu dituela.

### 1. COVID-19aren eragina unibertsitateko ikasleen osasun mentalean

Unibertsitateko ikasleena izan da Covid-19aren garaian osasun mentala aztertzerakoan ikertzaileen arreta erakarri duen gizarte-taldea, pandemiaren aurretik gaixotasun mentala izateko arrisku handia zutelako (Hamza *et al.*, 2021). Pandemiak erronka espezifikoak aurkeztu ditu goi-mailako hezkuntzako ikasleentzat, adibidez, laguntza-zerbitzuak eta ikaskuntza-prozesuak *online* inguruneetara egindako migrazioarekin bat datozenak (Rapanta *et al.*, 2020). Rapanta eta bere kideek (2020) adierazten dute ikasle askorentzat zaila izan zela aldaketa horiek modu eraginkorrean aplikatzea eta, ondorioz, antsietate-maila altuagoa erakutsi zutela batez ere beren etekin akademikoari eta epe luzerako enpleguari buruz pentsatzen hasi zirenean (Barbosa-Camacho *et al.*, 2022; Di Malta *et al.*, 2022). Horren harira, aurkitu dira osasun mentalari eragin dioten beste arrisku-faktore batzuk, hala nola ikasleen egoitzak ixtea, truke-ikasketak eta graduazio-ekitaldiak bertan behera uztea, denbora erdiko lanak galtzea eta gradu-aukerei buruzko ziurgabetasuna areagotzea. Baita konfinamendu eta urruntze sozialeko neurriak ere, sozializatzeko

eta harremanak ezartzeko aukera mugatuak ekarri dituztelako sare sozialekiko mendekotasuna eta bakardadea areagotuz (Hansen-Brown *et al.*, 2022).

Horiek horrela, osasunari eta ongizateari buruzko zenbait kezka aztertu dira, batez ere, antsietatea eta depresioa garatzeko arriskuarekin lotuta daudenak (Buizza *et al.*, 2022; Elharake *et al.*, 2022). Batetik, 162 unibertsitateko ikasleri egindako inkesta batek antsietate-maila altuak aurkitu zituen lan akademikoan kontzentratzeko zailtasunekin lotutako depresioarekin batera (Kecojevic *et al.*, 2020). Bestetik, 1.113 ikaslerekin egindako lan batek pandemiaren eragin negatiboa baieztatzeaz gain, azpimarratu zuen sintomak arintzeko estrategia prebentibo pragmatikoak, errentagarriak eta kulturalki sentikorrek garatzeko premia (Torres *et al.*, 2022). Adituek diotenez, pandemiaren eragin psikologikoa antsietatearen eta depresioaren sintoma klinikoetatik haratago doa, unibertsitateko ikasleek pandemian zehar estres-eta bakardade-maila altuagoak jakinarazi baitituzte (Barbosa-Camacho *et al.*, 2022; Hansen-Brown *et al.*, 2022).

## 2. COVID-19aren eragina LGB ikasleen bizitzan eta osasun mentalean

Aitzitik, ez da sakon aztertu lesbianen, gayen eta bisexualen ikasleen osasun mentala eta egoera (Gonzales *et al.*, 2023; Suen *et al.*, 2020). Kontuan hartu behar da, LGB pertsonak nahaste mentalen prebalentzia handiagoa dutela pertsona heterosexualek baino (Meyer, 2003). Gutxiengo taldeen estresaren teoriak proposatzen du kolektibo horrek azaltzen dituen osasun mentaleko arazoak, hein handi batean, beste arazo batzuekin lotuta egoten direla, hots, jazarpenarekin, tratu txarrekin, diskriminazioarekin eta biktimizazioarekin (De Lange *et al.*, 2022; Garaigordobil eta Larrain, 2020). Hori guztia dela eta, zentzuzkoa da itxarotea Covid-19an zehar LGB pertsonak beren orientazio sexualari dagozkion faktore estresagarriak esperimentatu izana. Horrekin lotuta, Estatu Batuetako (AEBko) gizon homosexualekin online inkesta bat egin zen eta, ikerketa horrek hauteman zuen pandemiak eragin kaltegarriak izan zituela ongizate orokorrean, interakzio sozialetan, familien ekonomian, elikagaien kontsumoan, droga-kontsumoan eta alkohol-kontsumoan. Laginaren erdiek sexu-bikotekide gutxiago zituzten eta ez zuten aldaketarik izan kondoiak eskuratzean edo erabiltzean. Horietatik, batzuk GIBaren proban, prebentzio- eta tratamendu-zerbitzuetara iristeko zailtasunen berri eman zuten (Sánchez *et al.*, 2020). Era berean, pandemian zehar unibertsitateko LGB ikasleen errealtatea aztertu duten ikerketek antzeko joera erakutsi dute. Gonzales *et al.* (2023) 18 eta 25 urte bitarteko LGB ikasleen beharrak aztertzen saiatu ziren sare sozialen bidez zabalduko inkestarekin. Eraitzen arabera, parte-hartzaileen % 45,7k aitortu zuten beren nortasuna babesten eta ezagutzen ez duen familia zutela eta, horrekin batera, horien erdiek baino gehiagok (% 60) betetzen zituzten larritasun psikologikoa, antsietatea eta depresioa izateko irizpideak. Hori dela eta, Nazio Batuen Giza Eskubideen Bulegoak (NBGEB) eta gobernuz kanpoko erakundeek pandemiak sexu-gutxiengoetan duen eraginaz jabetzearen garrantzia planteatu dute (NBGEB, 2020). Beraz, argi ikusten da Covid-19arekin lotutako faktore estresagarriak daudela sexu-gutxiengoen ikasleen kasuan. Lan honetan, hain zuzen ere, horietako bi aztertuko ditugu:

Alde batetik, LGB pertsonak beren sexu-orientazioarekin lotutako familia-gatazkak izan ditzakete. Covid-19aren neurriekin, LGB pertsonak denbora gehiagoz etxean geratu behar izan dute eta agian ez da testuinguru lagunkoia izan haintzat (Suen *et al.*, 2020). Espainian egindako ikerketa-lan batean oinarrituta, Madrilgo LGTB+ pertsona gutxiago atera dira armairutik Hego Amerikakoekin alderatuta (Hernández, 2023). Baliteke familia-presio handi bat jasaten egotea. Bestetik, pandemian zehar, LGB pertsonak harreman gutxiago izan dituzte lesbiana, gay eta bisexualen komunitatearekin (Suen *et al.*, 2020). Alabaina, frogatu da LGB pertsonentzat beren komunitatearekiko loturak erresilientzia-baliabide garrantzitsua direla (Nogueira eta Araujo, 2018). LGB komunitatearekiko loturek sare sozialetarako sarbidean laguntza eman diezaiekete, larritasun psikologikoa gutxitzen dute (Haug, 2018; Watts, 2021) eta ongizate hobea eskuratzen dute (Rostosky *et al.*, 2018). Beraz, LGB laguntza sozial txiki horrek eragin negatiboa izan dezake haien osasun mentalean (Nogueira eta Araujo, 2018; Rostosky *et al.*, 2018).

### 3. Gure azterlana

Ikerketa honek LGB ikasleen osasun mentala ikertu du Espainian Covid-19aren pandemian. Aurreko ikerketetan oinarrituta, hiru helburu nagusi izan ditugu: (1) konfinamenduan zehar LGB ikasleen artean Covid-19arekin lotutako faktore estresagarriak eta osasun mentaleko baldintzak aztertzea, (2) gutxiengo taldeen barruan dauden azpimultzoen artean Covid-19arekin lotutako faktore estresagarrien maila orokorra eta espezifikoak alderatzea, eta (3) faktore estresagarri orokor eta espezifiko horiek LGB populazioaren depresio- eta antsietate-sintometan dituzten ondorioak aztertzea. Covid-19aren faktore estresagarri orokorrek depresio- eta antsietate-sintomekin lotura positiboa izango dutela uste dugu. Gainera, sexu-gutxiengoan Covid-19arekin lotutako faktore estresagarri espezifikoak (alegia, sexu-orientazioarekin lotutako familia-gatazkak edo LGB komunitatearekiko konexioa murriztea) depresio-sintomekin eta antsietate-sintomekin modu positiboan lotuta egongo lirakeela ere uste dugu.

### 4. Metodoa

#### 4.1. Prozedura eta lagina

Parte-hartzaileak LGB komunitateko erakundeen eta LGB sare sozialetako argitalpenen bidez lortu ziren. Parte hartzeko ezaugarri hauek bildu behar zituzten: (1) 17 urte edo gehiago zituzten, (2) unibertsitateko ikasleak ziren, (3) gay, lesbiana, bisexual, pansexual edo ez-heterosexual gisa identifikatzen ziren, eta (4) Espainian bizi ziren. Inkesta Google Forms plataforman bete zuten, baina ikerketan parte hartu aurretik baimen informatua emateko eskatu zitzaizen. Euskal Herriko Unibertsitateko ikerketa-batzorde etikoak onartutako azterlana da (M10\_2021\_140).

**1. taula. Aurrekari soziodemografikoak eta LGTB pertsonen osasun mentaleko baldintzak (n= 475).**

<b>Aurrekari soziodemografikoak</b>	<b>n (%)</b>
Generoa	
Emakumeak	233 (% 49,2)
Gizonak	242 (% 50,8)
Orientazio sexuala/Genero-identitatea	
Gay/Lesbiana	284 (% 59,8)
Bisexual/Pansexual	191 (% 40,2)
Adina	
17-20	318 (% 67,0)
21-26	157 (% 33,0)
Enplegu-egoera	
Lanean	300 (% 63,3)
Langabezian edo ikaslea	175 (% 36,7)
Hileko diru-sarrera pertsonala	
950 euro baino gutxiago	285 (% 60,2)
950-1.200 bitartean	127 (% 26,9)
1.200 edo gehiago	63 (% 12,9)
Egoera zibila	
Bikoterik gabe	210 (% 44,1)
Harreman eskusiboan	242 (% 51,1)
Harreman irekian	23 (% 4,8)
Elkarbizitza	
Bakarrik bizitzen	49 (% 10,2)
Familiarekin/Lagunekin bizitzen	426 (% 89,8)

475 pertsonak parte hartu zuten ikerketan, goi-mailako ikasketak egiten ari zirenak. Parte-hartzaileen % 49,2 emakumeak ziren eta % 50,8, aldiz, gizonak. Gehienak gay edo lesbiana gisa identifikatu ziren (% 59,8), % 40,2k bisexualak edo pansexualak zirela aipatu zuten. Erdiek baino gehiagok (% 67,0) 17 eta 20 urte bitartean zituzten eta % 33k 21 urte edo gehiago. Erdiak enplegatuta zeuden (% 63,3) eta % 36,7 ez zeuden enplegatuta. % 60,2k 850 euro baino gutxiagoko diru-sarrera pertsonala zuten hilean, eta horien atzetik 900 eta 1.200 euro bitarteko (% 26,9) eta 1.200 euro edo gehiagoko (% 12,9) diru-sarrera pertsonala zutenak zeuden. Ezkongabeak izan arren, % 51,1ek harreman eskusiboa zuten eta % 4,8k harreman irekia. Gehienak senideekin, bikotekidearekin edota lagunekin bizi ziren (% 89,8), eta % 10,2 bakarrik bizi ziren. 1. taulak parte-hartzaileen aurrekari soziodemografikoak erakusten ditu (1. taula).

## 4.2. Aldagaiak eta tresnak

Hasteko, parte-hartzaileei informazioa emateko eskatu zitzairen haien generoari, sexu-orientazioari, adinari, lan-egoerari, hileko diru-sarrerara pertsonalei, egoera zibilarri eta etxebizitzaren konponketari buruz. Covid-19arekin lotutako faktore estresagarri orokorretarako, Covid-19aren pandemian beren osasun- eta finantza-egoerarekin kezka eta arazoak zer neurritan izan zituzten adierazteko eskatu zitzairen 1etik (ezer ez) 5era (neurri handi batean) 5 puntuko Likert eskala batean. Zehazki, item hauei erantzuteko: (1) Zer neurritaraino zaude kezkatuta zure osasun-egoerarekin Covid-19aren pandemian? (osasun-kezka), (2) Zenbateraino zaude kezkatuta zure finantza-egoerarekin Covid-19aren pandemian? (finantza-kezka), (3) Zer neurritan eragiten dio zure osasun-egoerari Covid-19aren pandemiak? (osasun-arazo erreala), eta (4) Zein neurritan eragiten dio zure finantza-egoerari Covid-19aren pandemiak? (finantza-tentsio erreala). Puntuaziorik altuenek osasun- eta finantza-kezken eta osasun- eta finantza-arazoen maila altuagoak adierazten dituzte.

Gainera, eguneroko errutinaren etena eta kontaktu sozialaren murrizketa honako elementu hauekin neurtu ziren: «Zer maiztasunekin eten da zure eguneroko errutina Covid-19aren pandemian?» eta «Zer maiztasunekin murriztu duzu zure lagunekin harreman soziala Covid-19aren pandemian?», hurrenez hurren, 5 puntuko Likert eskalan (1etik —inoiz ez— 5era —beti—).

Sexu-gutxiengoei espezifikoki eragiten dieten Covid-19arekin lotutako faktore estresagarri dagokienez, parte-hartzaileei eskatu zitzairen izan zuten familia-gatazka ebaluatzeko («Zer maiztasunekin izan dituzu zure sexu-orientazioarekin edo genero-identitatearekin lotuta familia-gatazkak Covid-19aren pandemian?») eta LGB komunitatearekiko konexioa («Zer maiztasunekin murriztu duzu LGB komunitatearekiko konexioa Covid-19aren pandemian?»). Hori guztia, baita 5 puntuko Likert eskala baten bidez ere (1etik —inoiz ez— 5era —beti—).

Depresioa 9 itemeko Pazientearen Osasun Galdetegiaren bidez ebaluatu zen (PHQ-9) (Spitzer *et al.*, 2000). 4 puntuko Likert (0 —ezer ez— eta 3 —ia egunero—) eskala baten bidez parte-hartzaileei aurreko 2 asteetan sintoma depresibo desberdinen maiztasuna adieraztea eskatu zitzairen. Eskalak dituen itemen artean hau dago: «Ez dut interes edo plazer handirik izan gauzak egiteko». Azterketa horretako eskalako Cronbach-en alfa 0.87koa izan zen. Ulertzen da eskalaren guztizko puntuazioan 10 puntu edo gehiago lortzeak depresio kliniko probablea adierazten duela. PHQ-9k % 88ko sentikortasuna eta % 88ko espezifikotasuna ditu nahasmendu depresioak diagnostikatzeko (Spitzer *et al.*, 2000).

Antsietatea 7 itemeko Antsietate Orokorreko Nahasmenduaren eskalaren bidez ebaluatu zen (Martínez-Vázquez *et al.*, 2022). 4 puntuko Likert eskala (0 —ezer ez— eta 3 —ia egunero—) erabilita parte-hartzaileei aurreko 2 asteetan izan zituzten antsietate-sintoma desberdinen agerpenaren maiztasuna adierazteko eskatu zitzairen. Eskalak dituen itemen artean hau dago: «Urduritasuna edo antsietatea sentitu dut». Azterketa horretako eskalako Cronbach-en alfa 0.90ekoa izan zen. Ulertzen da eskalaren guztizko puntuazioan 10 puntu edo gehiago lortzeak

antsietatea kliniko probablea adierazten duela. GAD-7k % 91ko sentikortasuna eta % 86ko espezifikotasuna ditu antsietate-nahasmendua diagnostikatzeko (Martínez-Vázquez *et al.*, 2022).

### 4.3. Datuen analisisia

Covid-19arekin lotutako faktore estresagarrien maila orokorrak eta maila espezifikoak LGTB pertsonen artean aztertzeo maiztasun-estatistikak egin ziren. Ondoren, horiek ezaugarri soziodemografikoen (hau da, generoa, orientazio sexuala, adin-taldea, etab.) arabera aldatzen ziren ala ez ikertzeo (alegia, alderaketak egiteko), t-test probak (bi aukera mota zituzten aldagaiekin) eta norabide bakarreko bariantzaren analisisia (ANOVA) (hiru aukera mota edo gehiago zituztenekin) egin ziren.

Erregresio multiple hierarkikoa egin zen Covid-19arekin lotutako faktore estresagarriek (orokorrak eta sexu-gutxiengoan espezifikoak) depresio- eta antsietate-sintometan duten eragina kalkulatzeko. Aldagai soziodemografikoak «fikziozko» gisa kodifikatu ziren eta 1. blokean sartu ziren. Covid-19arekin lotutako faktore estresagarri orokorrak 2. blokean sartu ziren aldagai demografikoen arabera kontrolatzeko. Sexu-gutxiengoek Covid-19arekin lotuta pairatzen dituzten faktore estresagarriak 3. blokean sartu ziren Covid-19arekin lotutako faktore estresagarri orokorretatik harago sintoma depresiboak eta antsietate-sintomak aurreikus zitzaketan aztertzeo.

Sexu-gutxiengoek Covid-19arekin lotuta pairatzen dituzten faktore estresagarri espezifikoek faktore estresagarri orokorrekin osasun mentalean duten eragina moderatzen duten aztertzeo, 12 interakzio-termino (6 faktore estresagarri orokor  $\times$  2 sexu-gutxiengoan faktore estresagarri espezifiko) sartu ziren ereduaren azken blokean. Aldagai iragarle jarraitu guztiak, interakzio-terminoak kalkulatu baino lehen, batezbestekoan zentratu eta erregresioan sartu ziren. Interakzio-terminoak esanguratsuak baziren, malda sinpleen analisiak egiten ziren estresore orokorren eta osasun mentalaren arteko erlazioa interpretatzeko, desbideratze tipikoa sexu-gutxiengoan estresore espezifikoan batezbestekoaren gaineratik eta azpitik zegoenean (Baños *et al.*, 2019; Pallant, 2020). Aurreko analisiak SPSS 28.0aren bidez egin ziren.

## 5. Emaitzak

### 5.1. Covid-19arekin lotutako faktore estresagarriak eta osasun mentala

Parte-hartzaileen erdiekin baino gehiagok (% 59) adierazi zuten beren osasunarekiko kezka-maila ertaina edo handia zela. Horien % 16,1ek adierazi zuten Covid-19aren pandemiak era moderatu edo handi batean kaltetu zuela beren osasun-egoera. Gainera, % 58,2k bere finantza-egoerarekiko kezka-maila ertaina edo handia zela adierazi zuten eta, horrekin batera, % 39,8k aitortu zuten pandemiak era moderatu edo handi batean eragina izan zuela beren finantza-egoeran. Parte-hartzaileen erdiekin esan zuten gutxi gorabehera beren eguneroko errutina eten egin

zela sarritan edo beti (% 55,7), eta baita Covid-19aren pandemian sarritan edo beti murriztu zutela lagunekin zuten kontaktu soziala ere.

Sexu-gutxiengoaren faktore estresagarri espezifikoei dagokienez, parte-hartzaileen % 5,1 inguruk adierazi zuten sarritan edo beti sexu-orientazioarekin lotutako familia-gatazkak izan zituztela Covid-19aren pandemian. Horietatik heren batek, bestalde, aitortu zuen sarritan edo beti LGTB+ komunitatearekiko lotura murriztu zuela (% 33,5).

Emaitzek adierazten dutenez, LGTB pertsonen laurdenek baino gehiagok betetzen zituzten depresio klinikoa (% 29,3k) eta antsietate-nahasmendu orokorra (% 25,7k) izateko irizpideak (2. taula).

## 2. taula. Osasun mentaleko baldintzak.

Osasun mentaleko baldintzak	
Depresio-sintomak	
Minimoa (0-4)	141 (% 29,7)
Arina (5-9)	195 (% 41)
Moderatua (10-14)	95 (% 20,1)
Neurri batean larria (15-19)	29 (% 6,1)
Larria (20-27)	15 (% 3,1)
Antsietate-sintomak	
Minimoa (0-4)	187 (% 39,3)
Arina (5-9)	166 (% 35)
Moderatua (10-14)	80 (% 16,8)
Larria (15-21)	42 (% 8,9)

### 5.2. Covid-19arekin lotutako faktore estresagarrien emaitzen eta osasun mentalaren emaitzen arteko alderaketa LGB azpitaldeen arabera

Esan bezala, t-test eta ANOVA probak egin ziren Covid-19arekin lotutako faktore estresagarrietan eta osasun mentalaren mailetan genero-desberdintasunak eta sexu-orientazioko desberdintasunak aztertzeko (3. taula). Emaitzek erakutsi zuten emakumezko parte-hartzaileek aukera gehiago zutela Covid-19aren pandemian lagunekin zuten kontaktu soziala murrizteko ( $t = -4.01$ ,  $p < .001$ ) gizonezkoekin alderatuta. Gizon homosexualak eta emakume lesbianek depresio-maila hobea erakutsi zuten bisexualekin eta pansexualekin alderatuta ( $F(1, 474) = 7.02$ ,  $p < .001$ ).

Aldinaren arabera aldeak egon ziren finantza-tentsio errealean ( $F(1, 474) = 8.99$ ,  $p < .001$ ), eguneroko errutinaren etenduran ( $F(1, 474) = 7.28$ ,  $p < .001$ ) eta LGTB+ komunitatearekiko konexio-murrizketan ( $F(1, 474) = 6.71$ ,  $p < .001$ ). Emaitzen arabera, 17 eta 20 urte bitarteko pertsonak probabilitate gehiago zuten



3. taula. Covid-19arekin lotutako faktore estresagarri orokorren eta espezifikoen alderaketa LGBren azpitaldeak kontuan hartuta.

	Generoa		Sexu-orientazioa				Adina			Diru-sarrera		
	Gizona	Emakumea	Gay/Lesb.	Bi./Pan.	17-20	21 <	< 850	850-1200	1200 <			
	M(SD)	M(SD)	M(SD)	M(SD)	M(SD)	M(SD)	M(SD)	M(SD)	M(SD)			
<b>Estresore orokorrak</b>												
Osasun-kezkak	3.01 (1.52)	3.38 (0.99)	3.01 (0.99)	3.39 (1.17)	2.89 (1.16)	3.02 (1.07)	2.87 (1.16)	2.91 (1.22)	2.79 (1.07)			
Osasun-arazo errealak	1.49 (1.02)	1.58 (1.07)	3.12 (1.34)	2.97 (1.25)	1.48 (1.03)	1.53 (1.05)	1.56 (0.92)	1.69 (0.87)	1.63 (0.94)			
Finantza-kezkak	3.07 (1.42)	3.10 (1.39)	1.59 (0.91)	1.83 (1.01)	3.03 (1.29)	2.91 (1.27)	3.05 (1.39)*	2.76 (1.25)*	2.63 (1.28)*			
Finantza-tentsio erreala	2.47 (1.32)	2.21 (1.35)	2.49 (1.39)	2.47 (1.29)	2.74 (1.39)*	2.16 (1.25)*	2.77 (1.36)*	2.56 (1.38)*	1.87 (0.99)*			
Eguneroko errutina etetea	3.36 (0.98)	3.72 (0.99)	3.47 (1.11)	3.72 (1.09)	3.83 (0.97)*	3.39 (1.08)*	3.83 (1.03)*	3.64 (1.23)*	3.33 (0.95)*			
Lagunekin harreman soziala murriztea	3.33 (1.16)*	3.84 (0.98)*	3.42 (1.12)	3.59 (0.99)	3.49 (0.98)	3.57 (1.11)	3.59 (1.05)	3.62 (1.09)	3.66 (0.97)			
<b>LGBTB estresoreak</b>												
Familia-gatazkek	1.25 (1.01)	1.43 (0.96)	1.38 (0.92)	1.61 (1.03)	1.46 (0.88)	1.41 (0.69)	1.51 (0.79)	1.49 (0.83)	1.50 (0.91)			
LGBTB+ komunitatearekiko konexio-murrizketa	3.04 (1.29)	2.94 (1.21)	3.02 (1.26)	2.59 (1.22)	2.63 (1.27)*	3.03 (1.28)*	2.81 (1.28)	2.89 (1.41)	2.90 (1.16)			
<b>Osasun mentala</b>												
Depresio-sintomak	6.73 (4.92)	7.55 (5.87)	6.76 (5.72)*	8.22 (5.92)*	8.11 (6.22)*	6.89 (5.51)*	8.39 (5.97)*	7.49 (5.72)*	6.18 (5.83)*			
Antsieta-sintomak	5.99 (5.26)	6.97 (5.34)	5.89 (5.54)	7.18 (5.27)	7.13 (5.56)*	6.33 (5.23)*	7.54 (5.56)*	6.93 (5.39)	5.83 (5.41)*			

Oharra. Taldeen arteko alde esanguratsuak izartxoarekin adierazten dira ( p < .001)

pandemian finantza-arazoak izateko eta eguneroko errutinan etenaldiak egiteko; 21 urte edo gehiagoko pertsonen, berriz, LGTB+ komunitatearekin konexio murriztua izateko. Era berean, 17 eta 20 urte bitartekoek depresio- ( $F(1, 474) = 7.82, p < .001$ ) eta antsietate-maila ( $F(1, 474) = 6.69, p < .001$ ) altuagoak zituzten helduak direnekin alderatuta.

Gainera, diru-sarrera desberdinetako LGTB pertsonen finantza-kezken maila nabarmen desberdinak antzeman zituzten ( $F(2, 473) = 15.16, p < .001$ ); era berean, jakinarazi zituzten emaitza ezberdinak finantza-tentsio errealean ( $F(2, 473) = 40.01, p < .001$ ) eta eguneroko errutinaren etenean ( $F(2, 473) = 10.03, p < .001$ ). Zehazki, hilean 850 euro baino gutxiagoko diru-sarrera zuten pertsonen erakutsi zituzten finantza-kezketan, finantza-tentsio errealean eta eguneroko errutinaren etenduran maila altuagoak Covid-19aren pandemian. Horiek ere depresio-sintometan ( $F(2, 473) = 12.23, p < .001$ ) eta antsietate-sintometan ( $F(2, 473) = 8.01, p < .001$ ) ere maila nabarmen altuagoak antzeman zituzten, beste azpitaldeekin alderatzen baditugu.

### **5.3. Covid-19arekin lotutako faktore estresagarrien ondorioak (orokorrak eta espezifikoak) depresio- eta antsietate-sintometan**

Erregresio multiple hierarkikoa erabili zen depresio-sintomekin lotutako faktore estresagarriak zehazteko. Emaitzek erakutsi zuten ezen diru-sarrera altuagoak zituzten LGB pertsonen depresio-sintoma nabarmen txikiagoak zituztela eta diru-sarrera baxuagoak zituzten pertsonen, aldiz, depresio-sintoma nabarmen handiagoak ( $\beta = -0.22, p = .007$ ). Bikote gabeko ezkongabeekin alderatuta, harreman eksklusiboa zuten LGB pertsonen depresio-sintoma baxuagoak erakutsi zituzten ( $\beta = -0.14, p = .003$ ). Ezaugarri soziodemografikoak egokitu ondoren, Covid-19arekin lotutako faktore estresagarri orokorrak LGB pertsonen depresio-sintomekin positiboki erlazionatuta zeudela aurkitu zen. Batez ere, finantza-kezkak ( $\beta = 0.14, p = .002$ ), osasun-arazoak ( $\beta = 0.22, p < .001$ ) eta lagunekin harreman soziala murriztu zutenek ( $\beta = 0.16, p = .002$ ) depresio-sintomak agertu zituzten. 3. taulan erakusten den bezala, sexu-gutxiengoen Covid-19arekin lotuta jasaten dituzten faktore estresagarriek beren depresio-sintometan aldaketa esanguratsua azaleratu zuten, Covid-19arekin lotutako faktore estresagarri orokorretatik haratago ( $R^2 = 0.2, F = 6.36, p < .001$ ). Sexu-orientazioarekin lotutako familia-gatazkek positiboki depresio-sintomak iragarri zituzten ( $\beta = 0.13, p < .001$ ), faktore estresagarri orokorrak kontrolatu ondoren. Azkenik, LGB pertsonen Covid-19arekin lotuta pairatzen dituzten faktore estresagarri zehatzek Covid-19arekin lotutako faktore estresagarri orokorren ondorioak moderatu ote zituzten aztertu zen. Osasun-arazo errealean eta sexu-orientazioarekin lotutako familia-gatazken artean interakzio-efektu esanguratsua egon zen ( $\beta = 0.16, p = .002$ ). Malda sinpleko analisiaren emaitzek adierazi zuten, osasun-arazo errealek depresio-sintomekin bakarrik erlazionatuta zeuden sexu-orientazioarekin lotutako familia-gatazkek jasaten zituzten LGB pertsonen emaitzetan ( $\beta = .28, p < .001$ ). Familia-gatazketan oso gutxitan sartuta zeudenen artean, osasun-arazo errealek ez zuten lotura nabarmenik depresio-sintomekin ( $\beta = .04, p = .41$ ).

**4. taula. Covid-19arekin lotutako faktore estresagarrien ondorioak (orokorrak eta LGB pertsonen zehatzak) depresio- eta antsietate-sintometan.**

	Depresio-sintomak				Antsietate-sintomak			
	B (SE)	$\beta$	R <sup>2</sup>	$\Delta F$	B (SE)	$\beta$	R <sup>2</sup>	$\Delta F$
